

BERTAN

3

ARANTZAZU

TRADIZIOA ETA ABANGOARDIA

KORTADI OLANO, Edorta

Arantzazu : tradizioa eta abangoardia / testua, Edorta Kortadi Olano ; argazkiak, Antton Elizegi ; itzulpena, Bitez.- [Donostia-San Sebastián] : Gipuzkoako Foru Aldundia, Kultura eta Turismo Departamentua, 1993.

72 orld. : irud. ; 28 cm.- (Bertan ; 3)

Bibliografia.- Aurkibidea

ISBN 84-7907-111-7

L.G. SS-406-1993

1. Santuario de Arantzazu

2. Santuario de Arantzazu - Historia

726.54 (460.154 Oñati) Arantzazu

248.159.4 Arantzazu

726.54 (460.154 Oñati) Arantzazu (091)

EDORTA KORTADI OLANO. Argazkiak ANTON ELIZEGI



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Kultura eta Turismo Departamentua
Departamento de Cultura y Turismo

Sarrera

“ZUK ZER DUZU, ARANTZAZU
Zuk zer dezu, Arantzazu!
amets kabi, otoitz leku?
Euskalerrria oso osorik
kantari dijoakizu.
Izena bera Arantzazu!
Kanta ederrena dezu
itz bakar ori
mintza orduko
Kantari jartzen gaituzu”.

Salbatore Mitxelenaren hitzak

Badu Arantzazuk zerbait, leku sakratu eta erlijioso gisa, ezdonespenaren eta esklaustrazioaren mendearen erdian, oraindik ere, Euskal Herriko leku eta gizarte maila guztietako milaka erromes eta pertsona deitzen eta biltzen duenean. Milaka pertsona igotzen dira urtean zehar mendi sakratu honetara, Herrialdean preziatua eta misterioetsuenetarikoa. Arantzazuko Andra Mari, bere egonarrrian erdi irribarretsu, erdi hermetiko, semea magalean duela, elorrondo lakar gainetik, Oñati eta Arrasateko haranetatik gora zabaltzen den leku sakratu eta mitikoan buru da. Oñatiko hiribildutik gora eta erromesaldian igotzea, milaka gipuzkoarrek egin duten bezala, Gotzai eta artzain duten José M^a Setien jauna aurretik, beren herriarentzat bakea eskatzeko, otoitz egiteko eta paisaia malkartsu eta misterioetsua begiesteko, erremosek eta turistek egin edo aurkitu ohi duten zereginetako bat dugu. Arantzazuk, sortu ere, oraindik sortzen du halako lilura bat. Bertako bakardadearen eta goi-haize erdian, gorputzarentzat nahiz izpirituarentzat bakegunea aurkitzen du batek han.

KULTURA ETA TURISMO DIPUTATUA: M.^a Jesús Aranburu Orbegozo.
KULTURAKO ZUZENDARIA: Garbiñe Egibar Artola.

Fitxa Teknikoa
ARANTZAZU. TRADIZIOA ETA ABANGOARDIA.
BERTAN 3.
L.G.: SS-406-93.
I.S.B.N.: 84-7907-111-7.
© EDIZIOA: Gipuzkoako Foru Aldundia. Kultura eta Turismo Departamentua.
© TESTUA: Edorta Kortadi Olano.
© ARGAZKIAK: Antton Elizegi.
© ITZULPENA: Bitez.
EUSKERAZKO TEXTUEN GAINBEGIRALEA: Bitoriano Gandiaga.
BILDUMAREN DISEINU ETA MAKETAZIOA: Txoria Errekan. Xabi Otero.
FOTOKONPOSIZIOA: Fonasa.
FOTOLITOAK: Ernio.
IMPRIMAKETA: Gráficas Zubi.



P. Urangaren koadro bateko detailea.

Basilikako obran aritu zen langileetako bat.



Andre Maria
Arantzazukoaren
irudia.



Frisoaren erdiko bi apostoluen
buruak.



Endrike Arozena, Arantzazuko
mezularia.

Aurkibidea

Lilurazko topografia	6
Historia apur bat	10
Erromesak eta ibiltariak	14
Zaharberritzea eta birsorpena	18
Berrikuntza eta abangoardia	22
Ingurua eta arkitektura	26
Imajinagintza berria	30
Apostolutza eta pietatea	34
Abentura eta ekaitza	40
Infernurako bidea	44
Gorapena eta aintza	48
Arantzazuko Andre Maria	54
Beirategiko zerua	58
Kripta	60
Otoigua	64
Arantzazuko eskola	66
Bibliografia	72
Ikonoграфия	72

Mendiotako pottoka bat.



Lilurazko topografia

Ez nau batere harritzen Lucio Muñoz pintoreak, Arantzazuko Basilikako mural handiaren lanari aurre egin behar izan zionean, Oñatitik Arantzazura igotakoan bertako orografiaz eta topografiaz hain grinaturik geratu zenez, han ikusten zuen paisaia liluragarria bere obran jaulkitzeko aukerari eutsi izanak.

Lilura horixe bera da edozein mendizale, turista edo erromesek atzitzen eta arnasten duena Arantzazura hurbildu ahala. Gipuzkoako Zaindariaren Santutegia arranoaren habia gisa (igokunde sinbolo), zintzilik agertzen da, harkaitz multzo, haitzarte sakon eta Araba, Nafarroa eta Gipuzkoako mugetarantz abiatzen eta hurbiltzen diren mendilepoez osatutako ikuspegi izugarriaren erdian. Santutegia, 700 metroko garaieran kokaturik, Elgea, Aloña, Aizkorri, Aitzabal, Beilotza, Beilostegi eta Gazteluaitzeko gailur eta




Komentua, Beilotzako harkaitz barrendik ikusita.

Santutegia eta beronen ingurua.

mendi-taldeek inguratzen dute, eta haren oinean linburtzen da trokate sakonetik behera Arantzazu ibaia, izen bereko mendikatean sorturikoa. Santutegia Aloñaren mendi-hegalean dago, haitzarte sakonaren ertzean, eta bertara iristeko, 9 kilometroko errepide luze eta kiribilkaritik gora jo behar da, Oñatitik abiatuz, udalerri honen mugapean baitago eta, Iñaki Zumalde eta Luis Villasante bertako historiagileek frogatu bezala, haren historiari hertsiki loturik egon izan baita. Bertarako bideak balio plastiko eta ekologiko handia du zentzu guztietan. Harkaitz-multzo garaiak, kareharrizkoak, eta haitzarteak eta mendilepo sakonak, mendi eta harkaitzetan gora landareria anitza, pagoak, astigarrak, haritzak, ezkiak eta urkiak, aginak, ipuruak eta elorri zuri nahiz beltz ugariak, ikuspegi izugarria osatzen.

Elorri zuri baten gainean, tradizio historikoak dioenez, aurkitu zuen Ama Birjinaren irudia Rodrigo Balzategi artzain gazteak, Oñatiko bizilagunei ziztu bizian berri ematera abiatu aurretik. "Arantzazu" toponimoak, Villasante Euskaltzainaren esanetan, landare kontzeptu hori agertzen du. Urtaro desberdinetan zehar kolore anitzez estaltzen dira eta beren hamaika ñabarduraz polikromatzen dute baso misteriotsu hau, hala nola bertan lasaitasun, bake eta alaitasun bila dabilen ikuslearen begiak. Udaberriak eta udazkenak, Mitxelena, Lizardi, Gandiaga, Lete eta Lekuona poetek gogokoen dituzten urtaroez, inguru hauek amets eta behaketarik idilikoenak sorrarazteko leku apropos bihurtzen dute. Pagoen eta pinuen berde bizi eta zukutsuek, haritzen



Gazteluaitzen islada.

Pottokak, Santutegi inguruan.

eta astigarren urrezahar horiek eta gorriskek, aldatu eta nahasi egiten dute Arantzazuko paisaia ibilge eta betirakoa. Arantzazutik abiatuta ere, mendizaleak aukeran ditu inguruko mendietarako ibilaldiak. Lau kilometrora eta 1.100 metroko garaieran dago Urbiako Zelai zoragarria, Neolitikotik hartzainak eta artaldeak bildu izan dituen eta Aranzadi, Barandiaran eta Egurennek 1918an dolmengune gisa aztertutikoa. Aitzkorri (1.544 metro), San Adrián, Artzanburu, Arriurdiñ, Gorgomendi, ditugu inguruko mendi harkaitsuak, mila eta mila bostehun metro bitartean daudelarik.



Aizkorri mendikatea Urbiatik.

XIX. mendeko autore batzuek deskribatu zuten Arantzazuko fauna, ia erabat desagertu da. Basurdeak eta orkatzak, azeriak eta otsoak, hala nola katamusturluzeak eta katagorriak elurte handitan baino ia ez dira ikusten. Hegaztiak, aldiz, ugari dira, zozoak eta birigarroak, larretxoriak nahiz mota askotako hegazti kantariak, batez ere Arabako lurren muga epeletan. Haien txioketak sortzen duen hots ederrak lilura eragiten du, espazio goitsuaren xarma areagotzerik baldin badago, areagotuz.

Historia apur bat



Burdinolako lan-une bat.

Espazio hori, "topos" hori, Arantzazuko Ama Santuaren irudia agertu zeneko leku sakratua, Aita Gaspar Garmarrak (1648) basamortu gerizgabe eta nahasgarri gisa deskribatu zuen, baina ez zitekeen horrenbestearino izan, Aita Villasanteren esanetan, bertako zuhaitzek Oñatiko Haraneko burdindegia hornitzen baitzituzten, bertako mendietan alatzten baitziren Goiherriko artaldeak, eta hurbiletik igarotzen zen Calahorrako Galtzarak Gipuzkoa eta Arabako lurak Gaztelarekin lotzen baitzituen. Badirudi XV. mendean bazela, jadanik, bidaiariei eta zalditeriari arreta emateko etxe edo ostatua, ospitale edo sorospen-leku izan zitekeen San Joani eskainitako basiliza, eta Uribarriko herrigunea (Arantzazutik hurbilen zegoen herriska) osatzen zuten etxe eta baserri batzuk. Auzo honetako Balzategi baserrikoa (beltzaren/beltzaranaren etxea) zen Rodrigo, Ama Birjinaren irudia aurkitu zuen artzaina. Aloñako egi hauetan bizi zirenak artzaintza zuten ogibide, oñatiar haraneko diru-iturririk nagusia nekazaritza izaki. Araoz eta Urrexola auzoak ere, beren eliza bazutenak, garrantzizko leku eta zedarri izan ziren Historian; Arantzazutik hurbil daude eta Santutegia eraiki baino askoz ere lehenagokoak dira. Santutegitik hurbil dago, halaber, Sandailiako leize-zulo




Sandratiko galtzada.

Araozko erlategi zahar bat.



izugarria, eta bertan dagoen haitzarteko basiliza, gaur egun Santa Iliari eskainia, Martin Mendizabal historiagilearen hitzetan frantsez birjin eta martiria. Duela urte batzuk bisitatu nuen Manuel Lekuona eta Manuel Laborde jaunekin batera. Biok lotzen zuten basiliza hau kristo aurreko praktika eta tradizioekin eta gaur egun oso antzinako ermandadea dago bertan. Lekuak, Araba eta Errioxako beste batzuen antzekoa, harkaitz-eremitorio itxura du. Biok ere, erlijio-tradizio neolitikoak erromatar beraintiar eta erdi-aroko kristau esparru erlijiosoarekin egungo erlijio-praktikara iritsi arte




Pablo Urangaren koadro bateko zati bat.

argi eta garbi elkarlotzen dituen ildo jarraitu hori azpimarratzen zuten, "continuum" hori.

Tradizio eta esparru sakratu honetan kokatu behar da artzain batek Ama Birjinaren irudi gotikoa zintzarria zintzilik duen elorri baten gainean aurkitu izana, 1469ko urtean, ehun urte geroago Esteban de Garibay y Zamalloa gipuzkoar historiagileak zorrozki deskribatu bezalaxe:

"Mila laurehun eta hirurogeitabederatzigarren urte honetan, bat gehiago, bat gutxiago, ganadua zaintzen zuen mutil bat, Baltzategiko Errodrigo zeritzana, Baltzategi etxeko semea, Uribarri auzokoa eta, esan dugunez, jurisdikzioz Oñati hirikoa, bere etxeko ahuntzak zainduz, esan dugun Aloña-maldetan, larunbat batez, zeina dagoen Maria Birjinari eskainia, aldapetan behera jaitsi zen, Jainkoaren eskuak gidatua, piadosoki sinestu behar denez. Haren maiestate neurrigabeak, onartuz aurrerantzean eremu hartan beti laudatua eta goratua izan zedila bere izena, eta Aingeruen Erreginarena, bere ama eta gure zaindaria, izanez leku hartako alde desberdinetako kristau fidelak bisitatua eta erreberentziatua, onartu zuen artzain-mutil honi ager zekion sakan hartan, arantza berde baten gainean, Birjina Mariaren irudi debotu bat, tamaina txikikoa, besoetan bere Semearen figurarekin, eta kanpai batekin, arran handi baten itxuran, ondoan..."

(Compendio Historial de Garibay. Amberes. 1571. Libro XVII, capítulo 25).



Arantzazuko Amaren lehen errepresentazio grafikoa (1587).



1835eko kolera izurritean Oñatira egin zen prozesioa. P. Uranga (1918).

Sandaili kobazulo famatua.



Berehala hasi ziren jainkozaleak eta erromesak leku sakratura joaten eta berau aro berri baten sinbolo bihurtzen, Erdi-Aro luze, beltz eta odolzalea ixten zuen aroa, hain zuzen ere, zeinean Euskal Herrian oñaztiar eta ganboarren arteko borrokak, inbidiak eta era guztietako liskarrak nagusitu ziren, baita gaitzak eta izurriteak ere, bizitza pribatuaren esparru askotara eta etxeetara gosea eta lazeria ekarriz. Hiribilduak eta udalerrriak gero eta gogorkiago arituko dira ahaide nagusien eta Errege Katolikoen monarkia zentralistaren boterearen aurka eta haiek mundu berrian zituzten enpresa eskergen aurka. Arantzazu Herrialde osoko jende umil askoren bilgune eta erreferentzia izaten hasia da, baita mundu guztiko emigrante eta atzerritarrentzat ere.

Apaizteriak eta herri xumeak basiliza eraiki dute lehen une batean, Andre Mariaren irudiari gerizpea emateko. Juana de Arriaran andrea hasi zen, oinatiar alarguna, bertako serora gisa, eta bere semea, Pedro de Arriaran, Burceñako erlijioso merzedarioa izango da Arantzazuko eta Gipuzkoa osoko gizonezko erlijiosoen lehen komunitatearen buru, 1493 inguruan. Baina, Fundazio honek ez du arrakastarik izango eta Arriaranek berak sortu eta fundatuko du frantziskotar "hirugarrendar" Komentualen Etxea, eta frantziskotarrak izango dira, denboraldi historiko labur batean ezik, inguru hauetan bost mendetan zehar biziko direnak.

Erromesak eta ibiltariak

Arantzazura, makina bat erromes eta ibiltari joaten hasten da, ia hastapenetatik bertatik, otoitz eginez barneko bakearen bila, beren kontzientziak aitorpenaren eta jaunartzearen bidez garbitzera edota egindako botu eta agintzarien berri zehatza ematera.

Iñigo Loiolakoa izango da hauetako bat. Gaua esnai emango du bertako elizan eta Jainkoagandik bere arimarentzako probetxurik jasoko du, Francisco de Borjak 1554ko abuztuaren 20an bere eskutitzean adierazi bezalaxe.



Arantzazu 1890 aldera.

Esteban de Garibay, arrasatear historiagileak ere bisita egingo dio Arantzazuko Amari, 1571ko urtean Amberesen bere "Compendio Historial" lan eskerga 40 liburu aletan argitara eman ondoren, hauetariko batean leku sakratu honen berri eman zuelarik.

Baina Pirinioen isurialde bietako Euskal Herriko jende apala izango da, nagusiki, otoitz egitera agertuko dena, edo zenbait arrazoi dela medio, hauen artean itsaso sakon eta ekaiztiekin zerikusia zutenak aipagarri, ezer eskatzera edo esker ona azaltzera. Senide kutunak lehorrera onez itzul daitezen eskatzera edo, berau lortu izanagatik "Itsasoko izarrari" eskerrak ematera etorri ohi dira. Harrigarria da, zentzu honetan, Arantzazuko Andre Mariari, nahiz eta kostaldetik horren urrun egon, zernolako gurtza dion itsasbazerreko jendeak, Komentuko bertako artxibategi eta hormetan gordetako idatziek eta dokumentu ikonografikoek frogatzen duten legez. Sekulako limosna, eskaintzari eta legatuak utzi zizkioten Santutegi honi itsasgizonek, Antonio de Oquendo, Juan Sebastián Elcano eta Miguel López de Legazpik kasu.

Urte osoan zehar, neguko hilabeteetan ezik, milaka erromes abiatzen da Santutegi honetara, bereziki Araba,

Arantzazuri buruzko liburu zaharrenetako baten erreproduzioa, Mejikon 1686an argitaratua.



P. Uranga (1918).
Fernambucon Antonio de Okendok eman zuen bataila (1631).




Bizkaia, Gipuzkoa Nafarroa eta Iparraldeko erromesalditan. Gotzai, apaiz nahiz fededun herriak leku sakratu honetara jotzen dute otoitz egitera.

Baina, mundu osoko bazterretan zehar ibiliko diren ibiltari ospetsuak ere abiatuko dira Arantzazutik. Hemendik irtengo zen Mexiko alderantz Juan de Zumarraga, hango lehen gotzai, hemen prestatuko ziren eta hemendik abiatuko ziren, halaber, Gipuzkoako komentu gehienak beteko zituzten frantziskotar gazteak, Tuy-ko Gotzaigoa betetzera irtengo zen Francisco de Tolosa anaia, Salvador de Almia anaia Palestinara, Luzuriaga anaia Mexikora, Juan de Durana Perura, José de Lerchundi Marokkora, eta beste hainbat eta hainbat, mundu osoko ezin konta ahala pertsonari argia ematera.

Erromes eta ongileei esker lortuko du, lortu ere, Euskal Herriko andremariar Santutegirik garrantzitsuenak, behin eta berriz, bere historian zehar izandako hiru sute handiak gainditu eta aurrera egitea.



Frai Joxe Mari, fraile hain gozo eta ezaguna.



Aurreko elizaren erretaula.

Lehena 1553ko abenduaren 26an gertatu zen nahigabeko arrazoiek eraginda. Komentu osoa errauts bihurtu zuen, eliza ezik. Oñatin etxea zuten josulagunek gordetako dokumentazio garrantzitsuari esker dakigu. Eskuzabaltasuna, laguntzak eta herriaren gogo beroak berehala altxatu zuten lehengoa baino eraikin handiagoa eta hobe, Aita Gamarraren esanetan. 1618 inguruan eraikita zegoen tenplu berriaren kapera, trokate gaineko zimentarri sakonek eutsitako gurutzaduraz. 1621eko irailaren 8an festa eta ospe handitan inauguratu zen eta Gaztela Zaharretik ere etorri zen jendea.



Arantzazuko autoplaza orain 30 bat urte.

Oraindik urtea ere bete ez zenean, beste sute bat izan zen 1622ko uztailaren 14ean, lehena bezain suntsitzailea, ordu gutxitan guztia errauts bihurtu zuelarik. Eliza berriaren zenbait zati, gela batzuk eta liburutegiko liburu batzuk besterik ez ziren libratu ahal izan, eta irudi sakratua, Gurutz-tokiko baselizan beila egin ziotelarik. Berriro ere, fededun herria samaldaka heldu da idi-uztarri, zur eta era guztietako materialekin, eta denbora laburrean berreraiki du planta gainezarria duen tenplu berria, Gregorio Hernández gaztelar eskultorearen aldare, harlandu eta irudiak dituen.

Baina, suterik larriena 1834ko abuztuaren 18an karlisten eta liberalen arteko liskar bizian nahita eragindakoa izango da. Rodil Generalaren aginduz, Iñurriagarro komandantearen zuzendaritzapean "Gipuzkoako bolondresak" deituriko batailoi liberal batek komentuari su eman eta errauts bihurtu zuen goizeko 4etan, matxinatu karlisten aterpe eta babesleku zelakoan. Erlijiosoek irudia Oñatira jaitsi zuten eta eurak handik Gasteizera eta Espainiako hegoaldera abiatu ziren. Sutetik, lehen eliza eta kanpandorrea atera ziren onik. Mendizabalen desamortizazioak erlijiosoak esklastratu eta ondasunak bahituko ditu, Arantzazuk garai ilun eta latza ezagutuko duelarik.

Zaharberritzea eta birsorpena




Arantzazu orain 60 bat urte.

Arantzazuren historia, bertako suntsipen eta "atzerakemen handiagoz berreraikitze"en historia, giza-izaeraren dimentsiorik sakonenetarikoa, erlijiosoa, ahaztu nahi ez duen herri baten berrespen eta fede ekintza gisa labur liteke. Javier Garrido idazleak dio "Arantzazu" bere obran, bertako sute eta berreraikuntzez ari denean, beharbada hauxe datekeela atalik ederrena: bere itxaropeneko sinboloak errautsetatik birsorrazten dituen herriaren fedearena.

Arantzazu birsortu bada, batez ere azken mendeotan, herriaren erlijio sinboloa izan delako birsortu da, eta honela ulertu dute berrikuntza eta abangoardia planteatu zuten belaunaldi berriek, beti ere giza-tradizioa kristau fedearekin lotu izanaren oinarriaren gainean.

Arantzazu, esklaustrazioa izan zenean ere, ez zen inoiz erabat utzita egon. Villasantek azaltzen digunez, erlijioso esklaustratu batzuk bizi ziren bertan apaiz soinekoz jantzita eta Komunitaterik osatu gabe. Berauek izango ziren, 1845ean, diru premia zela eta, tenplu pobre eta umila eraikitzen hasiko zirenak, eta urtebetean burutuko zuten. 1846ko azaroaren 19an irudia Oñatitik Santutegira itzuli da, hiribilduan hamabi urtez egon ondoren.

Esteban Epelde anaia azkoitiarra izango da, Kaputxinoak Arantzazun etxea hartzekoak direla jakin eta, Gobernuarengandik 1878an Komunitatea eratzeko baimena lortuko duena, eta izapide publiko bidez errepidea eraikiko duena. Urte batzuk lehenago, 1859an, frantziskotarrak Bermion etxea hartuta zeuden, eta zertxobait geroago



Pergaminozko liburu bateko orriak.

Zarautzen ere egingo zuten. Epelde anaia izango da, halaber, Gasteizko elizbarruti berria fundatu ondoren, erromesaldien tradizioa berreskuratuko duena, eta Julián Pastor y Rodríguez, Oñatiko Katedradun jaunari Arantzazuko Amaren Historia dokumentatu eta kritikoa, 1880an Madrilén argitaratu zena, idazteko mandatua emango ziona. Epelde anaia izango da, azkenik, 1886ko ekainean

ospatutako Koroapen Jaien bultzatzaile eta euskarri, Montserratekoa koroatuko zen urte berean. Mariano Miguel Gómez, Gasteizko gotzaiak Ama eta Semea koroatu zituen, erromesaldian etorritako fededun jendetzaren aurrean. Literatur lehiaketak eta lore-jaiak, ereskiak eta himnoak gaur egun bizirik dirauten errepertoriotan hezur-mamitu ziren; hona hemen adibidea:

Arantzazuko Ama

Arantzazuko Ama Birjiña,
zeruko Erregiñ aundia,
kendu pekatu danen arantzak
eman Jaunaren grazia,
eman Jaunaren grazia.

1. Agur zeruen edertasuna
arrosa zuri gorria,
apaindurien lore bikañez
Jaungoiko berak jantzia.
Arantzartean arantza gabe
arantzan gora jaikia,
Agur Amatxo biotz biguña
grazi beraren jargoia
grazi beraren jargoia.

2. Ortikan zaude euskalerriko
Seme goixoei begira,
Gaur zure seme oien kontrako
Etsaiak naiko badira.
Zugana gatoz, Ama maitea,
Zure estalpe argira,

A la Virgen de Aránzazu

Salve María del sacro Espino,
luz del camino del mortal,
guía a tus hijos, oh Madre amada,
a la morada celestial,
a la morada celestial.

1. Eres, oh Virgen encantadora,
fiel protectora, dulce imán
de la Vasconia que en ti confía
en su alegría, en su afán.
Siempre te aclama, Madre querida,
luz desprendida del Edén.
Siempre te aclama pura y clemente,
próvida fuente de su bien,
próvida fuente de su bien.

2. Tú de los cielos faro esplendente,
Madre clemente del Señor,
Al pueblo vasco fuiste enviada,
Prenda sagrada de su amor.
Tú de los vascos, Madre amorosa,
La fe ardorosa guardarás,



P. Uranga (1918).
Koadro baten osagaia.

Ixuri zazu zure indarra
Euskal-biotzen erdira.

Tú de los vascos siempre el destino
Desde ese espino guiarás.

J. J. de Aranaren hitzak.
M. Letamendiaren eresia.

Elías Martínez de Zuazo anaia arabarrak bultzada nabaria emango die Santutegiaren obrei. Egungo Exertizio Etxea, Hospederia eta ubide baten bidez Arantzazu-ibaitik ura ekartzeak, Arantzazuko proiektu eta gauzatze nagusienak izango dira. Fraide honi zor zaio Arantzazuko Ama Gipuzkoako Zaindari aldarrikatu izana ere. Berak egindako gestioei esker, 1918ko irailaren 9an aldarrikatu zen Zaindaritza hau, Komentuan dirauen Elías Salaverria pintorearen urdinez eta laranja kolore leunez beteriko obra historiko-sinbolista bikainean ikus daitekeen bezalaxe. Halere, komeni da azpimarratzea Kantabriako frantziskotar probintzia osoak 1738az geroztik Arantzazuko Ama bere Zaindaritzat aitortzen zuela, eta honek Euskal Herrian eta Gaztelako lurralde batzuetan bere zaindaritza betetzen zuela.

1918ko urte berean Pablo Uranga pintore arabarrak San Frantziskorekin eta Santutegiaren historiarekin zerikusia zuten gaiei buruzko koadro sail bat pintatu zuen. Pintura arina da, gorabeherak dituen, akademizismoaren eta inpresionismoaren bitartekoa, eta hauen artean aipatzekoak dira: "San Francisco", "Procesión de la Virgen de Aranzazu a Oñate con motivo del cólera. Año 1855", "Cántico al hermano Sol", "S. Francisco enviando a los frailes a predicar" eta "D. Antonio de Oquendo en la batalla de Fernambuco. Año 1631".

Aipamen berezia merezi du, kronikarien eta historiagileen aburuz, Arantzazuren birsorpenean, Aita Lizarralderen figurak (1884-1935), zeinak 1915ean tuberkulosi larria izan eta sendatu ondoren, Arantzazuko Amaren eta Oñatiko Unibertsitatearen historia idazteko agintzaria bete zuen, hala nola Andra Mari de Gipuzkoa (1926) eta Andra Mari de Vizcaya (1934) obrak, dagoeneko klasiko direnak, Arabari dagokion zatia amaitzeke utziz. Aita Lizarralde izan zen, halaber, "Arantzazu" aldizkariaren sortzaile eta lehen zuzendaria, eta bertako moldiztegia eta harmarria sortu zituen "In splendore ortus tui" idazpuruaz, gerora Aita Elías Martínezek aldatuko zuena legendazko "Arantzazu?" ezarritik. Urbiako basiliza eraiki zuen, gainera, mendizale eta artzaintzat, eta bertako lehen kaperaua izan zen.

Arantzazuko Andre Maria Gipuzkoako zaindari izendatua. Elías Salaberriaren koadroa. 1924.



Berrikuntza eta abangoardia

Sarritan entzun izan diot Jorge Oteyza eskultorerari Aita Pablo Leteren figura gorespenez eta sutsuki aipatzen. Kubatik itzulitakoan Santutegiak zuen itxura pobre eta zaharkituaz kezkatutik, goitik behera berritzeko abenturan abiatu zen abangoardiaren harremanetan jarritz. Arantzazu, 50eko hamarkadatik aurrera, euskal erlijioaren herrikoia erakargune eta berrikuntzaren biltoki bilakatu da. Arte eta kultura, erlijioa eta abangoardia elkarbizitzen saiatuko dira,




Aita Garmendia predikuan, 1951 urte aldera.

XX. mendeko gizon euskaldun modernoarentzat balioa duten benetako artelanak ernarazteko eta taiutzeko ahaleginean. Arantzazu, honela, berezko eskubidez bilakatu da herri oso baten modernitate eta abangoardia sinbolo. Baina, baliozko saiakuntza historikoa izan al zen eta eutsiko al lioke gaur egun grinagabeko kritika historikoari? Ba al diraute oraindik gaur egun sortu eta zabaldu zeneko tentsioek eta kontraesanek?

Edonola ere, orduan Kantabriako Probintzial izendatu berri zen Aita Letek, gobernurako gaitasun handiko eta etorkizun ikuspegi argiko gizonak, 1949an Santutegia berritzeko eta berriro herrira eta kultur abangoardietara hurbiltzeko kanpaina batera bultzatu zituen bere fraideak. Euskal Herriko biztanleriaren sektore guztiak bereganatzea zen helburua, batez ere herri xumea. Herriko kultur abangoardia artistikoekin hartu-eman sortu nahi zen, praktika plastikoaren barnetik abiatuz jokabide erlijiosorako baliozko ereduak eskaintzearen. Ahalegina, aitortu beharra dago, gogorra, sakona eta sendoa izan zen. Gaur, mende erdiko ikuspegitik, proposamenak bizirik dirauelakoan

Lehengo eliza, erabat bota baino lehen.



Egungo Arantzazu elurpean.

gaude, bizirik, eratsu eta zabalik, ia sortu eta taiutu zen unean bezalaxe.

Dirubiltzeak emaitza zabala eta entzuna izan zuen. Erlijiosoek herriz herri eta etxez etxe eskatu zuten laguntza. Jende apal eta enpresa gizonak, artista eta erlijiosoek, parrokia eta udalek, garrantzi eta entzute handiko eginkizunean eskuharturik ikusi zuten beren burua. Laster azalduko dira proiektuaren inguruko "aldekoak" eta "aurkakoak", baina ordurako sarturik zegoen espazioan eta denboran atzera egin ezineko prozesuan.

1950eko urtean, Aita Letek Arantzazu egiteko Arkitektura Lehiaketa Nazionalaren deialdia egin du, Oteyza hitzetan "gure herriaren erlijio eta kultura herrikoia erdigune, arte-tailer, gure tradizioen museo" Letek Santutegiaren eta Gipuzkoaren duin izango zen espazio arkitektonikoa sortu nahi zuen, aldi berean behar liturgiko-futnzioneletara egokitua eta bertaratzen ziren milaka erromesari behar bezala harrera egiteko modukoa.

Hogeita hemeretzi proiektu aurkeztuko dira Lehiaketa honetara, zenbait lekutatik: Gipuzkoa, Bizkaia, Araba, Errioxa, Katalunia, Balear Irlak, Aragoa, Madril, Avila, Leon, Salamanca eta Andaluzia. Urte bereko irailean eman zen Lehiaketaren epaia eta ondoko hauek osatzen zuten



epaimahaia Isabel Monforte historiagilearen arabera: Avelino Elorriaga jn. (Gipuzkoako Aldundia), Aita Pablo Lete (Kantabriako Probintziala), Vicente Ugalde jn. (Oñatiko Alkatea), José María Muñoz Baroja jn. (Probintziako Arkitektoa), Jesús Rafael Basterrechea jn. (Arkitektuen Elkargo Eusko-Nafarra), Secundino Zuazo jn. (Lehiaketarako Arkitektoa) eta Jesús María Sainz de Aguirre (Idazkari Teknikoa).

Luis de Laorga jn. eta Javier Saenz de Oiza jn. izan ziren irabazleak, beren proposamena, tenplu sendo eta malkartsua linea eme eta akademikorik gabea, eta kanpandorrea harri zorrotzez osatua, elorriaren sinbolo. Biak saiatuko dira obra hau Joaquín Ruiz Jiménez, Hezkuntza Ministrariaren kultur politikaren korrante aperturistetara eramaten, alde batetik, unibertsalismo faltsuei ihes eginez. Horrelaxe ikusiko du Jorge Oteyza beraren buruargitasunak eta koherentziak: "...Gure arkitektura erlijiosoaren egungo espresio bide handia izan daiteke. Irrikaz nahi dugu, arte erlijioso berri baterako europar saioen aldean, gure giza nortasunaren eta gure fedearen karga eutsiaraziaren ekarpena egin, formazko pentsamolde koherente eta aurrerakoia bidez, ez baitu inoiz aditzera emana izateko aukera historikorik eduki, edo ez du aprobetxatzen jakin. Oraingo honetan, adierazteko premia dugu, benetan, eta badakigu nola eta zertarako egin".

Aldare nagusiko harria jaisten (1960 aldera).


Frisoaren
aldamenetako
dorre puntak.



Arantzazuko elizkizun bat.

Arkitektuek beso motzeko gurutze latino eta abside handiko plantadun Basilika proiektatu dute, bertan erdiko espazio zabala azpimarratu eta diseinatu delarik, unitarioa,

fededun talde ugariarentzat abegikorra. Argi laino eta opalino sartzen da erdiko zabalaren goialdean irekitako argi-lehioetatik eta argi urdinberdegrisaska batek blaitzen du elizkizunerako espazioa, alboko zabalaren hormetan kokaturiko leiartegietatik. Saenz de Oiza arkitektuaren begi eratsu eta indartsuak bete betean asmatu du. Lan horretan talde lanean eta gogoz arituko diren eskultore, errementari, beiragile eta pintore talde bikain baten laguntza izango du.



Ingurua eta arkitektura



Gaur egungo Arantzazu lurraren isilean.

Laorga eta Saenz de Oiza arkitektoek "topos" historikoarekiko eta bertan aurkitzen diren material, forma eta argiekiko begiramen handiz diseinatu dute bere eraikina. Basilika berria aurrekoaren gain-gainean sortzen da, 1920ko zimentuak aprobetxatuz, baina aurrez lehengo eliza eraitsi eta kripa bihurturik utzi behar izan zen. 1834ko sutetik onez atera zen dorrea ere, linea barrokoak zituena, eraitsi egin behar izan zen. Proiektuak, egileen ahotan, Arantzazuko inguruneari begirunea zor dio, bertako landareriaren pintzelkada aberatsa eta haitz malkor eta haitzarte izugarrietako argi eta itzalen egokiera zoragarria kontutan harturik.

Diseinu arkitektonikoak erabateko egokiera eta begiramena agertzen du aurrez dagoen ingurune fisiko nahiz arkitektonikoarekin. Fatxada nagusirako sarbidea errespetatzen da, albotik eta ez aurretik, hala nola katakunba izaera eta lurraren erraietara jeistearena. Nartex-aren gorantzako lerroak nabarmentzen dira eta aldeetako horma guztiak lerratzen dira zerutik sartzen den eta nola Lucio Muñozen muralean hala Santutegiko hiru dorreetan isurtzen den argirantz. Karratua eta zirkuluaren funtsezko sinboloak berreskuratzen dira guztizko diseinuan erromatar berantiar eta erdi-aroko gorantzako elementu gisa, nola plantan hala



Eliz barruaren ikuspegi bat.



Obrero eta fraile, eliza berriaren lanetan.

altxara eta bolumenetan. Kareharri grisa eta zura erabiltzen dira paisaiatik eta ingurutik berreskuratutako onarrizko erreperitorio gisa. Eta, batez ere, multzoari eratasun eta batasun handia eman nahi zaio, bertaratuko den banako eta multzoko subjektua kontuan izanik.

Bere fatxada nagusiak, kanpairik ez duten ezkiladorreak barne, erdi-aroko tenpluaren osaera-eskemari jarraitzen dio, hau bai, indar eta garbitasun handiko erreperitorio sinboliko-ikonografikoen ekarpena eginez.

Construcciones Uriarte enpresak gauzatu duen proiektua, neurri batean komunitate erlijiosoak lagunduta, 1955eko abuztuaren 30ean inauguratu zena. 1963ko maiatzaren 11n, Arkitektuen Elkargo Eusko-Nafarrak Juan Manuel Aizpurua Saria eman zion obra honi bere balore funtsezko eta enblematikoengatik. Halere, berehala ugaritu ziren kritikak, herrikoiak nahiz jakitunenak, Arantzazun burututako Arte sakratuzko multzo modernoari buruz. Bertako eta Estatuko sektore kontserbadore batzuentzat, obra aurreratuegia gertatzen zen eta garaiko printzipio erlijioso eta estetikoaren aurkakoa zen. Arantzazu, erresistentzia eta modernotasun sinbolo gertatzen zen, banakako nahiz taldeko eskubiderik errespetatzen ez zuen frankismoaren basamortu soziokulturalean, atzerriratzea, errepresioa eta



gartzela bere buruan jasaten ari zen herriarentzat. Kritika historikoa laster hasi zen bideratzen eta obra honetan arreta jartzen, agertzen zituen kontraesanak eta zalantzak adieraziz, forma berri eta ezohizkoen alde guztizko apostua egiten ez zuela eta. 1963ko urtean, eta bere "Iglesias nuevas en España" idazlanean, Arsenio Fernández Arenas-ek esango zuen Arantzazu obra pionaria zela eta arkitektura erlijioso modernoan lehena, baina bere formak ildo tradizionalan zeudela, berrien aldeko nolabaiteko zalantza agertuz. Antonio Bonet Correa-k 1984ean bere "Arte del Franquismo" idazlanean, Arantzazuko Basilika ezaguna, historizismoaren amaiera aldean, bere forma-aberastasunagatik bereiztea



Absidearen forma geometrikoak.

Eliza berria Don Pablore abside gainean eraikia.



Eliza berriaren fatxada osoaren sintesia apoteosikoa.

merezi zuen bakarrenetakotzat aipatzen zuen. Boneten aburuz, Saez de Oiza-k gehiegizko literalitasunez transkribatu zuen Dominikus Böhme Viena egindako elizaren eskema organikoa. Javier Garrido-k 1987ko bere "Arantzazu"n, obra honetan zera azpimarratzen du: "Osotasun bateratuaren sentsazioa. Espazio materiala bakarrik ez, baizik, giroa eta ebokazio den tenpluaren esparrua. Gakoa ikusmen-paradoxaren jokaeran datza: alde batetik, gain-azpi jarritako gilla erraldoia; bestetik, gurutzaduran eta absidean zeharreko goramen trazeendentea. Eta argia, orain gardentasunetan dario, orain forma eta bolumenetan gauzatzen da".

Izan ere, izan zezakeen, guk uste, osakera-eskema modernoago eta aurrerakoiagoa, baina, zergatik ez zuen Saez de Oiza-k proposatu? Proposamena iraganaren eta etorkizunaren uztarririk egokienean datza. Formazko oreka eta garbitasun izugarriak ditu, inguruarekin eta kolektibitatearen izpirituarekin bat egiten duen eratasun handia. Hain zuzen ere, gaur egun oraindik zoragarri dirau obrak, multzo osoa eratasun eta koherentzia kontzeptual handikoa gertatzen delarik.

Imajinagintza berria

Guztiok dakigunez, Aratzazuko Basilikaren dekorazio artistiko-plastikoak gorpuzketa-prozesu luze eta konplexua jasan du eta oraindik ere gaur egun bidean diren ekarpen berrietara zabalik dago.

Laorgak eta Saenz de Oiza-k proiektaturiko espazio arkitektonikoak errepertorio ikonografiko zabala zeukan programaturik eta bertan barne hartzekoak ziren eskultore, pintore, beiragile eta diseinadore ekologisten lankidetzak. Guztiek izan dituzte beren une eta garapen pertsonalak, egiten zituzten obrak multzo bakun eta bakarrean integratzen ahaleginduz. Beharbada, horretara gehien hurbildu diren obrak, gure aburuz, lehen une batean eta haren lehen fasean garatu eta gauzatutakoak izan dira. Azpiko kriptak eta otoiguko pinturak, bigarren fase kronologiko bati dagozkio eta nolabaiteko desintegratzeak jota daude, berez normala denez, multzoarekiko.

Esan dezagun hasteko, Saenz de Oiza-ren proiektuan Jorge de Oteiza, Ameriketara ibili ondoren herrira itzuli berria zen euskal eskultoreari, zuzenean eta lehiaketarik



gabe egozteko pentsatua zegoela fatxadaren imajinagintza guztia. Berari zegokion, beraz, fatxada osoa bete behar zuten errepertorioei forma eta espresibidea ematea. Oteizak, halere, eskaintzari uko egin zion eta lehiaketa mugatu bat egitea proposatu zuen, eta egin zenez, urte haietan Gasteizko katedrale berriaren eskulturan lanean ari zen Joaquín Lucarini arabar eskultorea izan zuen lehiakide. Oteizak lehiaketa irabazi zuen eta estatuaria hura burutzea gogoz eta atseginez onartu zuen. "Lan hau egiteko gogobetez nago —idatzi zion Aita Leteri 1952an—, eta izpiritualki horixe irrikatzen nuen eta horretarako prestatzen



Apostoluen indar plastiko trajikoa. Jorge Oteiza.

ari nintzen duela urte asko, hain zuzen ere". Handia zen, benetan, eskultoreak bere gain hartu behar zuen erantzukizuna, eta jakinaren gainean zegoen bera. Eskultura salbaziorako lankidetzak izpiritual gisa ulertzen zuen, ez forma eta bolumenaren errepikapen edo kopia hutsa bezala soilik. Bere irudien asmoa kristau-arte tradizionala berritzean zegoen eta Artearen Historian klasikoak ziren errepertorioen irakurketa berria eskaintzen zuen: Apostoluz eta Pietatea. Oteizak erakutsia zuen, bere lehen obratik bertatik, gizonaren eta emakumearen figurarekiko kezka. Bere "Tangente S. igual a A partido por b" obrak (1931), zeinean

Adan eta Evaren aurpegi antropomorfoak agertzen baitira, ordurako adierazten zituen bere ondorengo eskulturaren zati bat ezaugarrituko dituen zantzuak. Brutalismoa, primitibismoa eta espresionismo formala, artelanaren erabateko kontzeptualismoa. Ardatz hauen inguruan landu izan zituen bere obrak 50eko harmakadan zehar. Eta horiexek izango dira Arantzazuko Estatuaria itzelaren




dira fatxadaren kale nagusirako nitxo irregularretan proiektaturiko errepertorio ikonografiko erlijiosoak, hala nola fatxadaren koroa gisa elkarren gainka jarriko ziren arkuteria irekiak. Egindako azken proposamenak erabatekotasun eta eratasun handiagoa du eta itxura modernoagoa emango dio multzo arkitektoniko-plastikoari, eta ez hain eklektikoa.

Irudiak kanalean irekita agertzen dira, barrenak husturik, beren "ni" az gabetuta, trascendentziaz gainezka eta besteei zabalik. Besteentzako izakiak dira, beren izateaz erantzita daude. 1948an Buenos Airesen Juan Plazaolak zioenez, Oteyza hiru bermapuntu hauen gainean ari zen lanean: hutsunea, hedapena eta irekidura. Hutsune eta gabetasun sakratua, eskultoreak cromlecharen eta trikuharriaren prehistoriara, ilargiaren eta frontoiaren mitopoetikara atzera itzultzen duena eta erlijio-estatutaria berrira zabaltzen duena. Oteyzentzat artea salbazioa da, ala ez da ezer. Mendebaldeko artea, salatu du bat-batean, zentzugabearen formalismo hutsal eta akademikoan eta giza -trascendentziarik gabean erori da, forma hutsaren arrunkeria. "Hemen guztiak gorantzako zama du, haragiak galtzen du beti. Gaurko terminoetan birrartzen da —baieztatzen du Oteyzak berak Txosten batean— arte erlijiosoaren ildo zorrotza —antzinakoak, erromanikoa eta gotikoa— Grezia paganoaren, Berpizkundearen eta Akademiaren ildo profano eta sentsualaren aldean".

aurreko bozetoak eta behin betiko proposamenaren ardatzak, 1953 eta 1969 bitartean burutuko zuena.

Oteyza une horretan giza-figurazioak nahiz arte abstraktoak kezkatzen zuten plastikari dagokionez. Baina, beretzat biak ere ez diote elkarri aurka egiten ez eta ukatzen ere, baizik eta elkar osatzen dute eta binarioak dira; plastikaren Historian zehar beti gertatzen den prozesua da, azken finean, bere idatzietan kausitze handiz "aldaketen legea" deituko duena: "Figurazioa garrantzitsuagoa da abstraktu dena baino, beti ere, bere funtsa irautea denean, abstraktu denarekiko izatea, hau baita figuratibo denaren barne arkitektura", dio C. Garciak "Euzkadi" aldizkarian egindako elkarrizketa batean. Aurrerago azaltzen du abstraktu denak osatzen duela figuratibo denaren barne -eraikin arkitektuala. Hau bai, figuratibo denak irausterik ez badu, ez du ezertarako balio, adierazten du artistak adimen argiz. Gainera, artea herriarentzat da eta hau hari hurbildu behar zaio.

Oteyzak, fatxadarako egingo dituen proposamen desberdinetan, beti proposatuko du Apostolutza sarrerako ate bikoitzaren gainean jartzeko eta Ama Birjina frontoi-horma nagusiaren goialdean. Lehen bozetoetako Amatasuna Pietate bihurtuko da eta gorago ezarriko da, piskanaka desagertuko




Apostolutza eta pietatea

Laorga eta Saenz de Oiza arkitektuek eskultura-lana arkitekturari atxikitako osotasun gisa pentsatu zuten; horrela jasoarazi dute Basilikari buruzko Txostenean. Proiektua sortzerakoan, pintura eta eskultura lanak ez dituzte dekorazio gisa aurrikusten, Arantzazuko multzoaren zati izankide bezala baizik. Arantzazun bertan pintatzea eta tailatzea, diote arkitektuek jarraian, behar-beharrezkoa da. Lan hau gabe, proiektua amaitzeke geratuko litzateke, zentzurik eta bizirik gabe.


Tenpluaren fatxadarako, arkitektuek proiektatu dituzte, ez deboziozko irudiak, fedez eta elizkoitasunez hornituak, objektu artistiko iradokitzaile eta erreferentzialak baizik, balore estetiko-dekoratzailez hornituak. Artelan hauek piztutako polemika, neurri handi batean, funtzio hauek ulertu ez eta beste zentzu bat eman nahi izanean datza, hain zuzen ere.

Artisten hautaketa, adierazten dute arkitektuek, ez zen halabeharrez edo behatzez egina izan, guztia aholku eskatuz



eta konpromisua hartutako alderdi guztien kontsentsuz egin zen eta, gainera, lehiaketa publiko bidez. Secundino Zuazo jn. ospe handieneko arkitektu espainiarrak, eta Daniel Vázquez Díaz, saririk handienak jasotako pintore espainiarrak, hala nola Aita Frantziskotarren Komunitateko gehienek abalatu zuten egiteko hau.

Honela beraz, Jorge de Oteyza eskultorea 1950ean hasiko da lanean Madrilgo inguruetan, Ciudad Lineal-eko Fernández Cano kaleko 3an dagoen estudio batean, Paula Eraso historiagileak dioenez. Oteyza eskultore abangoardista gisa agertzen da eta halaxe aitortzen diote eta bere lana une horietan Ferrault, Ferrera, Serra, Miró, Alberto eta Moore



Eskaiola eta harria. Proiektua eta errealizazioa.

-renarekin batera azaltzen da mostra, erakusketa, proiektu eta bienaletan. Eskultorea bere "Interpretación estética de la estatuaria megalítica americana" (1952) lanean ari zen buru-belarri eta artista amerikar nahiz europarrei munduko arte berriaren sorpena proposatzen zien, beti ere, lekuan lekukoa berreskuratzetik, gure sentsibiltate historiko-plastikoan hurbilen eta kuttunen dugunetik abiatuta.

Oteyzak, frontisaren zabalera kontutan hartuta, 14 irudiz osaturiko Apostolutza proposatzen du, eta izaera sinbolikoa ematen die berauei: guztiok izan behar dugu Apostolu, ez hamabi haiek bakarrik; 14 arraunlari aritzen dira traineruan eta Eliza untzia ere bada; irudietako bi elkar besakartzen ari dira, multzoan zehar dabilen angustia kristau irtenbidea

emanez. Eskultoreak berak eman du aditzera txosten teknikoan: "Apostoluaren erretratu teologiko antzeko bat dago harrietan, elkar osatzen duten 14 egoeratan, elkarrekin eta dorreekin tinko batzen direnak, mintzatuz, jaulkiz, mundutik eta haragitik jarioz, taula muralaren goialdean




Andre Mariaren Jasokundearen irudiak gidatzen dituelarik". Eta zertxobait geroago Oteyzak dio hemen guztia zama arteko borroka gisa dagoela sortuta, beherantzako zama duenaren eta gorantzako zama duenaren artekoa, borroka hori izpirituaren alde askatzen delarik. "Hemen guztiak gorantzako zama du, haragiak galtzen du beti".

Lanaren burutzapena baino lehen hamaika bozeto eta maketa egin zen, hauetako asko igeltsuzkoak. Berauen aldagaiek eta ezaldagaiek frogatzen dute bere ideiak zertzeko hamarkada luze batez borrokan aritu behar izan



Ama Birjinaren bozetoa.

Eskaiolazko bozetoa (Goikobentan).



Apostoluen bozetoa.

Lararen murala (Goikobentan).



zuen artista honen izaera esperimental eta odolbizaia. Henry Moore-ekin izandako harreman plastikoak ez ditu inoiz ezkutatuko artistak, bere pentsamendu pertsonala Abangoardiaren zerbitzura jarriko duela esanez, gainera. 1954eko abuztuaren 10ean eskultoreak lan kontratua

sinatuko du Aita Julio de Eguiluz, Kantabriako Frantziskotarren Komunitatea ordezkatzen zuenarekin eta, obren egile eta zuzendari gisa, Damián Lizaure, Saenz de Oiza eta Luis Laorga arkitektoekin. Hirurehun eta berrogei mila pezeta jasoko zituen bere lanaren truke eta kanpo-eskulturrak 1955eko irailaren 1erako beharko zuen amaituta egon.

Jorge Oteyzak Arantzazuko Goiko-Bentan hartuko du ostatu bere laguntzaileekin batera; Pascual Lara eta Nestor Basterretxea izango ditu lagun lan horretan. Artistek ostatuko horma eta paretetan utziko zituzten gaur egun oraindik ikus

daitezkeen obra eta bozeto batzuk: Pascual de Lararen Rodrigo de Balzategiren pintura eta Jorge de Oteizaren igeltsuzko Pietatea.

Urteak joan ahala eta zenbait prozesuren ondoren, eskultoreak hasierako bere proposamen eta proiektuak neurri batean xahutu eta desmaterializatu egingo ditu. Beti dirau ideia finko edo ardatzak, baina lana beronen inguruan tajutuz iristen da orain ikus daitekeen zehazpen plastikora. Prozesu hau Apostolatuan eta Pietatean ere ematen da. Artistak berak kontatzen du Andre Mariari buruzko bere ideiak zernolako bilakaera izan duen; lehenik bat erromanikoegia egin du, bigarren batean beronen materia nabarmentzen da, eta azkenik bi hauen sintesian gauzatu dena aurkeztu du, baina hau ere ez da behin betirakoa izango. Bere ikasle eta laguna zen Txabi Echebarrieta hil ondoren, ama zutik ezarriko du, zeruari aldarri eginez, seme hila oinean duela. Pietate zoragarri hau izango da gaur egun ikus dezakeguna eta, beraz, behin betirakoa.

Behin betiko proiektuan, eskultoreak eta arkitektoek horma hutsik utziko dute, euskal herriko frontoien antzera, Apostolutza behealdean kokatuko du, bi dorreen artean, eta Pietatea horma horren goialdean frontoia burutuz. Planoaren biluztasun eta hutsak beronen gainean ezarritako irudien erabatekotasuna eta indar bolumetrikoa nabaritzen ditu. Oteyzak lan bikain honetan antzematen dio eta neurri batean garatzen hasia da espazioaren erabateko desokupazio abstraktua, gerora "Cajas metafísicas", "Poliedros vacíos" eta "Homenaje a Velázquez" lanetan garatuko duena. Proposamen osoaren garbitasun eta orekak etorkizuneko iksupegia argia erakusten du, gaur egun ere denborak aztarnarik utzi ez baitio.

"Aurpegi bat eta begirada bat.
Garenetik ez garenerantz ametsez?
Misteriora hurbildu baino lehen,
geure burua eta nahia ditu azterbide,
eta Andre Maria aurkitu baino lehen
dorre eta arkupe
harri diamante-puntadunen artean
Harri Bizia dugu bilatzen
izenik gabeko apostoluen,
zutikako Ama Doloretakoaren
eta zurrunki datzan Errugabe
entregatuaren galderak eraginda".

Javier Garrido

Frontisa beteko Ama Doloretakoa.



Abentura eta ekaitza

la jende guztiak ezagutzen du Oteyzaren eskulturek eragindako abentura eta ekaitza eta ordurako bazetozen Pascual de Lara eta Nestor Basterretxearen proposamen pikturikoak. Proiektu haren aurrean eliz-agintariak izuak hartu zituen eta bertako indarrak erreakzionarienez proiektuko indarrak bizienera eraso egiteko aprobetxatu zuten, batez ere, sinbolizatzen zutenagatik eta beraiek zekarten berrikuntza soziokultural-erlijiosoa eta eguneratzeagatik. Arantzazuko artista taldeak eta beronen euskarri zen komunitateak "abangoardia artistiko" eta "erlijio-tradizio herrikoia" zantzuak argi eta garbi erakusten zituzten eta berauen aurka zuzenduko zituzten asmorik gaiztoenaz



funtsik gabeko eraso eta susmoak. Juan Plazaolak dio artista handien patua dela: izuaraztea. "Oteyzaren erretratuek, gizakiaren misterioa agertuz, erretratua bera izuaraz dezakete; bere Amatasunak bizitzaz blai daude; bere Apostoluak kristautasun konformistaren gainera horzka oldartzen diren erraldoi erasokor eta ikaragarriak dira; bere Madonnak, Buitragokoa kasu, harri eskergak dira, elementalak, masiboak, baina tentsioz josiak, gizonaz -gaindiko maiestatea iradokitzen dutelarik".

Izan ere, nahiago izango zuketen Jaime Font y Andreu jaunak, Diozesiar Elizako artzainak eta goi-kleroak, frankismoarekin gehiegi kideturik zegoenak, Lucarini, San Sebastianen eskulturarik figuratiboenen eta deboziozkoenen egilearen presentzia, Oteyza proteiko eta polemikoarena baino, zeinak gainera, bere burua euskal kulturaren militantetzat baitzeukan eta halaxe aldarrikatzen baitzuen. Ez zirudien Euskal Herriko zenbait sektoreri ere oso atsegin zitzaizkienik absidearen eta alboko kaperen



Apostoluen frisoari azken ukituak ematen.

Apostoluen friso gogoetagarria.

burutzapenerako Lehiaketara aurkeztu izan ziren proposamen pikturiko desberdinen izaera "abstraktuegia" eta "euskal erlijiosotasunaren izpiritu falta". Paula Erasok dokumentatu du sortutako ekaitza, bertan parte hartu zutenak, besteak beste, Vicente Cobreros Uranga, Agustín Ibarrola eta Flores Kaperotxipi izaki.


1953ko irailean, Gotzaiak eta lurraldeko agintariak Santutegia bisitatu zuten eta idazleak dioenez, ezadostasun latzak sortu ziren. Gotzaiak Batzorde Diozesiarra sortu zuen eta honek hamar hilabete eman zuen biltzeko. Artistei txostenak eskatu zitzaizkien, eta hauei esker, gaur egun obren sorrerari eta esanhaiei buruzko dokumentu bikainak ditugu; batzordekideek beren buruak eskumenik gabekotzat jo zituzten eta Erromara Txosten bat igortzea erabaki zuten. Irizar arkitektoa izan zen txostena lantzeko arduraduna eta obrari izaera plastiko erlijiosoa ukatzen zion bertan. Artistek, hau da, Oteyzak, Basterretxeak eta Larak, beren aldetik, herriaren sektorerik jantzienera beren alde dagoela eta erasoak lehiaketan izandako epaiarengatik eta arrazoi




Apostoluak karretera bazterreko bertan behera luzean.

antieuskaldunengatik muturtuta zeuden artistengandik zetoze adieraziko dute. Beren obrak, baieztu dute Erromakoen aurrean, Frantziskotarren eskariz eta beraien aholkularitzapean eginak dira eta fede-egien eta teologia katolikoaren izaera pedagogikoa dute. Honela, beraz, artistak eta beraien formak ez ziren ulertu eta baztertu nahi izan ziren oraindik gorpuztu gabe eta erabat sortu gabe zeudenean.

Italiarako Arte Batzorde batek eta Constantini kardinaleak sinatutako erabakiak obrak geldiarazi zituzten 1955eko ekainaren 6an. 1968ko azarora arte, Oteyzak ez zion Arantzazura igo eta bere obrari akaberarik eman nahi izango. Beste artista batzuk zori okerragoa izan zuten. Pascual de Lara, gaztetan hildakoa, Lucio Muñozek ordeztuko zuen 1962an, eta Nestor Basterretxeak ikatz-ziriz egindako frisoen bozetoak, fraideek ezabatu ondoren, 1984ean pintatu ziren, Xabier Aizarna jn. Gipuzkoako Diputatu Nagusi zela. Ondoriozko multzoa hobetu egin zen azkenean Lucio Muñozen mural erdiabstraktuari esker, baina ezin esan da gauza bera Nestor Basterretxeak "in situ" egindako eta desagertutako muralei buruz. Beronen pinturek ez zuten, jada, hastapeneko proiektuari bizia eman zioten izpiritua, ez eta formak ere.



Apostoluen harrizko baleta.



Infernurako bidea


1954ko urtean, Arantzazuko Basilikako zuzendariek Eduardo Chillidari emango zioten bertako sarrerako Ateak egiteko agindua. Eskultore donostiarra ordurako euskal olagizontzat hartua zen, urte berean Milango Hirurtekoan ohorezko Diploma eman ziotelarik. Eskultoreak, obrako arkitektu, eskultore eta pintoreen laguna izaki, lan eratsu eta arrazionala, geometrikoa eta abstraktua diseinatu eta gorpuztuko du Vulkanoren Sutegian, zeinaren erreferente bakarrak, antza, eguzkia eta ilargia, elorri enborren bat eta bat-batean agertu eta gauzatzen diren gurutze batzuk baino ez baitira. Eduardo Chillidak honako honetan anabasa menderatu du. Bai baitaki, Gabriel Celayaren hitzetan, "anabasa menderatu behar dela, erremintak tajutu behar direla; eta hutsarte kolonizatu; eta irudi menderatzailez bete eta izerdituz, izerdituz eta pentsatuz, harantzago daramaten kolpeak errepikatuz, metal distiratsuak garbi utzi zepa eta zikinez, alboratutako gaiez, sugar iraungiez, sumin hilkorrez, txirbil metalikoez, nekeez. Eta honela irits daiteke, honela bakarrik, errauts artean eta izar distiratsu artean, anabasa artetik agertzen den orden sekreturaino, jainko prometeikoekin batera".

Eduardo Chillida, Parisetik etorri berria eta europar abangoardiekin harremanak izan ondoren, garai honetan (1951-1958) Hernaniko Vista Alegren bizi zen, Victoria Olasagasti bere izebak moduko prezioan alokatu zion etxean. "Nire herrira itzultzea garrantzizkoa eta zirrargarria izan zen neuretzat, zentzu honetan. Hemen jabetu nintzen nor nintzanaz. Nondik nentorrenaz. Hemen, Hernanin, halabeharrez ikusi nuen egun batean, nire etxearen aurrean burdinola bat zegoela, eta orduan aurkitu nuen mundu ilun, urrun, zahar eta ugalkor hura. Han ezagutu nuen mailuz landutako burdina, erakusketetako burdin-brontzea ez bezalakoa. Niri behintzat, burdin hura bestelakoa iruditu zitzaidan".

Hernanin lantzen hasi den burdina, izan ere, beste zerbait da. Parisen Gonzálezen eta Gargalloren burdina ezagutu zuen, baina orain, Manuel Illarramendiren sutegian ezagututako eta landutako burdina beste galaxia batekoa da. Josetxo Garzia izan zen Arantzazuko Ateak lantzen lagundu ziona. "Nik orduan isilik lan egiten nuen, musika ere jartzen nuen, Bach batez ere, itzela baita. Musika espazioaren arreba da, eta hau biziki interesatzen zait".

Urte gogorrak izan ziren eskultorearentzat; haztamuka zebilen, beti zalantzaz beterik. Gaur, etapa hura eta bere bizitzaren une hura txeraz eta begirunez gogoratzen du. "Egia esan, burdinak indarra eta misterioa zuen. Interes handikoa zitzaidan burdin pudelatua, hobe zen mailuz lantzeko eta ez zen erraz erdoiltzen. Tolosako txatarleketan aurkitzen nuen burdin hau".

Eduardo Chillidaren burdinazko ateak
(1955 aldera eginak).



Eduardo Chillidak, nola obra honetan hala bere ibilbide luzean zehar sortutako lan gehienetan, intuizioak eramaten uzten du bere burua, horretan datza bere ustetan artistaren eta teknikoaren aldea. Teknikoak goitik behera ezagutu behar du bere lanaren emaitza, bai eta egin aurretik ere, artistak, berriz, bilatzen egiten du lana, ikertzen, nora iritsiko den jakin gabe. Emaitza aldeztu aurretik ezagutzen bada, obra hilik jaiotzen da.

Chillida hasia zen garai honetako lanetan materia bere horretan errespetatzen, berezko kolorez uzten, beronen



barne arauak ez behartzen. M^a Soledad Alvarez Martínezek esango du Arantzazuko Ateak bezalako obretan angulazioen eta kurbaturen garaipena gertatzen dela, ertz bizien existentzia eta materiari gailentzen zaion espazioaren garaipena. Eskultorea errementariengandik hurbil dago, antzinako euskal olagizon errenazentistarengandik, alegia; burdina mailuz jo eta suz lantzen du, bere "Oyarak" lortu arte, hala nola "Espacios sonoros", "Música de las constelaciones" (1954) edo "Elogio del fuego" (1955). Bere eskulturek, esango du Schamalenbach bezain kritikari jantziak, espazioa eragiten dute, espazioa lekualdatzen dute, espazioa sorrarazten dute. Eta Moreno Galvánek dio: "Chillidak materia espazio sakratuetaraino jasotzen du, materialen baitago sorpen ororen lehen lokatza... Chillidak materialak goratzen ditu berauek daudelako biziaren jatorrian". Sutegiko burdina, zakar eta infernutarra dago, egon ere, Eduardo Chillidaren hastapenetan eta lehen obretan. Ia lurraren errailetan dauden Arantzazuko Ateak



egiteko, eskultoreak burdina izango du gogoan eta eratasunez eta arrazionalki erabiliko du, jakinduriaraz ezarritako esparrura egokituz. Ateak ezinhobe uztarturik daude fatxadaren multzoan. Oreka klasiko handia dute, ez dute ezer sobera, ezer falta. Lau ateetan, elkarren gaineko burdin-xaflen erritmo horizontalek eta bertikalek geometria egonkor eta garbiko espazioa sortzen dute, garai honetako Ben Nicholsonenekin lotzen eta kidetzen direlarik. Chillidaren Ateek materialaren pobrezia eta laztasunaren gainetik, oreka klasikoa dute, ia greziarra.


"Zer adierazi nahi ote du guzti honek?
Horra leku santuko lau ateak
ilun eta burdinazko.
Mito eta sinbolo, totem eta gurutze,
dena da hemen biziberritzen, zubi den
arkua eta abstraktua den geometria".

Javier Garrido

Gorapena eta aintza

"Ate eta ate-oste, eta barruko argi ilunskia.
Eta begiak aurrera doazkizu zabal eta geldi
Andre Mariak deituta. Eta han dira,
aparizio berria agertu bailitzaien".

Javier Garrido



Erretaula aldamiatua.

Poetak horrelaxe deskribatu du Chillidaren Ate infernutarrak igaro ondoren tenpluan sartzen den sinestunak, erromesak, turistak atzitzen duen sentsazioa. Begirada mutu eta sorgindurik zuzentzen da Andre Mariaren Arantzazuko Irudirantz eta gero instintuz igotzen da goitik datorren argirantz. Lucio Muñozen erretabloaren lorpen handia da, handia txiki egin izanaren eta paisaia naturala erretabloan irudiaren laguntza eta inguru gisa sartu izanaren garaipena. Lucio Muñozen erretablo handia artelan bikaina dugu, eta denbora bere baitan igaro ahala, lilura handiagoa eragiten du eta helduago agertzen da. Artelanak benetakoak eta erabatekoak direnean misterio horixe dute. Ziur naiz halaxe aitortzen duela egileak berak, zeinak obra hau bere ekoizpen artistikoaren barruan mugarritzat baitauka, Euskal Herrira datorren bakoitzean bisitatu eta bere bilakaera hurbiletik jarraitzen duelarik. Obrak, teknikoki, lehen egunean bezalaxe dirau, bere pinturak, zurak eta egindurak sortu zen unean bezalaxe diraute.

Lan hau 1962an eman zitzaion egiteko Lucio Muñoz, Estatu mailako lehiaketa mugatu baten ondoren. 42 pintore aurkeztu ziren guztira, Bilbo, Hondarribia, Donostia, Iruñea, Zaragoza, Salamanca, Valentzia, Las Palmas, Burgos, Bartzelona, Haro, Ibiza, Madril eta Sabdellekoak. Estatuko artisten artean izen azpimarragarriak zeuden, besteak beste: Eusebio Sempere, Manuel Hernández Monpó eta José Luis

Luzio
Muñoz-en
erretaula
itzela
(1962).






Lucio Muñoz Arantzazun (1962).

Sánchez; bertakoen artean, Julian Ugarte, Ramón de Vargas, José Sarriegui, Remigio Mendiburu eta Javier Arocena. Epaimahaia ondokoek osatzen zuten: Agapito Fernández Alonso, José Manuel Aguilar, Modesto López Otero, Enrique Lafuente Ferrari, Godofredo Ortega Muñoz, Eduardo Chillida, Ramón Vázquez Molezún, Francisco Javier Saenz de Oiza, Luis Alustiza eta Benito Mendiak, eta 60.000 pezetako lehen saria eman zioten Lucio Muñozen proposamenari, eta 10.000 pezetako sei bigarren sari, lehenengoa José Luis Sánchezen lan eskultorikoarentzat izaki. Artistek, aurrez, beren lanen txosten adierazlea aurkeztu zuten, multzoaren bozetoa eta eskala naturaleko zati bat eta aurrekontua.

Lucio Muñozen proposamena, Oteyzak "abstrakzionismo naturalista" deituriko ildoan zebilen. Hauek ere, dio, abstraktu deitzen dira, beren baitatik kanpo




Beiraduretako argia erretaulan.

Eskerrean absiderako zenbait bozeto, goitik behera: Javier Arocena, Ramón de Vargas, Manuel L. Villa Señor y Hernández Mompó.

bidaiazen hasi dira, inoiz ezer premia sortzailez pentsatu ez izanagatik nekatu samar, oraingoan ez dute, inpresionistek egin bezala, argia bilatzen, gorputz naturalak baizik, harkaitzen eta zuhaitzen formak, berriro Ederraren ideia platonikoaz gidaturik forma ez-figuratiboak irudiztatzeko, figuratibo ez denak gaur egun artista oso bereizi egiten du, forma natural horietatik natural-geometrikoa ateraz.

Lucio Muñozen Erretabloa, beraz, ildo honetan mugituko da. Bera, Arantzazuko paisaiaren egitura-zantzu orokorretatik eta irudi sakratuari buruzko kondairatik abiatzen da, eta honen inguruan hiru espazio natural uztartzen ditu elkarren gainka, lurra eta elorria Rodrigo Balzategi eta Andre Mariaren irudiarekin, mendiak eta harkaiztegiak, eta zeruaren goialdea. Eta guzti hau goitik, Saenz de Oizaren arkitektura zentzudunetik, amiltzen den sestrako argiak biltzen duela, kolore gris eta urdin perlatsuz, eta okrez eta beltz dramatiko eta infernutarrez margotzen duela. Lucio Muñozek ezinhobe atzitu du euskal paisaiaren telurismoa, lehenago Vázquez Díazek eta Artetak egin bezala, eta bere lengoaia materiko eta abstraktunaturalistaz jantzi du. Zura landu, tailatu, zauritu eta urratu, erre, ia

.mineralizatu, margotu egin du. Seirehun metro karratu zur landu ditu Lucio Muñozek bere gogoko obra lortu arte. Aita Pedro Anasagastirekin izandako elkarrizketa batean, esan zion: "Sinesbeterik nago nere lana bihotz-bihotzetik maite izango duela Santutegira etorriko den jendetzak, eta hauxe




iruditzen zait artelan bat ulertzeko erarik egokiena. Bestalde, nire lana sentitzekoa da ulertzekoa baino: ez dauka ezer, ez estetizismorik, ez inolako jeroglifikorik; guztia naturan bertan bezain era sinple eta oldarkorrez gertatzen da. Ez du inork galdetuko nire obrak zer esan nahi duen, Arantzazuko paisaiak edo bertako mendian koloreak zer esan nahi duen inork galdetzen ez duen bezala". Kolore eta paisaia klimax horixe bera da, aldi berean Alvarez de Eulateren beirateek misteriozki argizaturik, erromesa eta turista atzitzen duena eta bihotzikara sorrazten diona. Obra eratsu agertzen da, soil ia abstraktu, errealismo magikotik hurbil, eta hari dario Arantzazuko Andre Mariaren iruditxo hauskorra bertatik agertuz.


Ziurrenik ere, Carlos Pascual de Lararen hasierako Proiektua egin izan balitz, eraikera sendokoa eta giza-irudiz betea, gaur egungo gure sentsibiltate garaikiderako barrokoegia eta gehiegi apaindua irudituko litzaiguke. Lehen lehiaketa hartara 1952an aurkeztutako artisten artean zeuden Ignacio Echandi, Juan Aranoa, Genaro Urrutia, José Sarriegui, Gaspar Montes, Santiago Uranga, Simón Arrieta, Agustín Ibarrola, Jesús Olasagasti, Fernández Pasajes, Néstor Basterretxea, Pascual Lara, Valentín Luis de Morguedo eta Matías Alvarez Ajuria. Epaimahaia F. Ignacio Omaecheverría, Daniel Vázquez Díaz, Secundino Zuazu, Jorge Oteyza, Luis Laorga eta Francisco Javier Saenz de Oizak osatzen zuten. Ahobatez hautatu zituzten Carlos



Erretaulako zenbait txatal.



Pascual de Lara eta Néstor Basterretxea Arantzazuko Basilikako horma-dekorazioa burutzeko, Ibarrola eta Eulateren lanak ere nabarmenduz, zeinek lankidetzan lan bat ere egin baitzuten. Batzordeak proposatu zuen Basterretxeak arkupea eta Larak apaiztegia margo dezatela eta Ibarrolak eta Eulatek alboko kanpo-arkupean lan egin dezatela. Kantabriako Probinziako definitorioak, Miren Erasok dioenez, Larari absidearen dekorazioa egotzi zion eta Basterretxeari kriptarena, Eulate frantziskotarrari beirateak egiteko eskatu zioten eta Ibarrolari alboko arkupea. Lara bat-batean hil zenean, Basterretxea geratu zen horma-dekorazioaren arduradun bakar gisa.



Arantzazuko Amaren harrizko irudia.

Arantzazuko Ama. Grabatua.

Ezin ahanzi dugu paisaia zoragarri honen erdian eta deskribatzen ari garen testuinguru sozio-historiko-artistikoan, jaiera eta pietate objekturik nagusia Arantzazuko Andre Mariaren irudia dela. Rodrigo de Balzategik sasitzan aurkitutako irudi txikia gaur egun Santutegian gurtzen den berbera da, leku honek bere historia osoan zehar jasan izan dituen sute, esklaustrazio eta era guztietako gertakarietatik onez gordetako. Ez al da hau, berez, herrien eta kolektibitateen historian gertatu ohi diren mirari txiki horietako bat? Zergatik salbatu dira irudi horiek eta ez basteren batzuk?

Eserita dagoen irudia da, Ama Birjina haurrarekin tipologiari erantzuten diona, Euskal Herrian "Andra Maria"



P. Urangaren koadro bateko irudia.

Aranzan Zu! Gregorio Hombrados Oiñatiaren koadroa (1927).



deiturikoa eta erromatar berantiar garaian, edo transizioan kokatu beharrekoa, XIII. mendean, eta historiagile batzuen ustetan, XIV-XV. mendeetako estilo gotikoan. Irudia, 36 zentimetrokoa, harrizkoa, ama koroadunarena da, sagarra edo munduaren bola esku batean, eta bestearekin haur biluziari abegi ematen. Irribarre arina eta begirada bizia dutela, ama-semearen aurpegikera ezta da. Arroparen toledura zurrin samarrak dituzte baina naturalismo handiagorako joeraz. Baliteke irudia gerora berrukitu izatea, Erdi Aro amaieran edo beranduago agian. Horrela ikusi zuen Aita Lizarralde eta horrela ikusten dute gaur egungo espezialistek ere. Zenbait mendetan zehar, 1621az geroztik, irudia Berpizkundean eta Barrokoan hain gustoko zituzten



Arantzazuko Amaren kamarina, azken erreforma baino lehen.



Pergaminozko Benedicta liburua.



Hemezortzigarren mendean Mejikon egindako Arantzazuko Amaren pintura.

soingainekoaz eta bitxiez gainezka gurtua izan da, 1963an jatorrizko egoerara itzuli zen arte. Lucio Muñozek, erretabloaren egileak, otoigu berriaren espazioa diseinatu zuen. Irudia agertu zeneko jatorrizko elorria eta zintzarria samurki eta kausitzez erantsi zitzaizkion Arantzazuko Andre Mariaren irudiaren multzoari, zeinak gaur egun, argiztapen egokiari eta ederresmenari esker, guztiz ohoragarri agertzen baita. Gora-behera hauek direla eta, irudiak eta multzoak izan zuten zer irabazirik.

"Harritzkoa zara.
Irribarrezko harri
triste t'hotzezkoa.
Elorrian zagoz.
Irribarrezko triste
irribarrezkoa".

Bitoriano Gandiaga

Nork ezarri zuen Ama Birjinaren irudia elorri gainean eta zer helburu zuen? —itauntzen dio Luis Villasante historiagileak bere bururari—. Alferrikako galdera, ez baitu erantzunik erideten. Burutapenak burutapen, otoi egitera bakardade horietara joandako penitenteren batena, edo


handik zihoan ibiltari edo erromesen batek utzia edo hari eroria izan zitekeela jo da aukeratatzat.

Duela gutxi, eta 1981-82an José María de Zunzunegui artistak burututako birmoldaketa ondoren, aldare-mahaia eta anboia, balio historiko-artistiko ukaezina duten bi jaiera-objektu gaineratu zaizkio: Sagrarioa, Lucio Muñozek egindakoa, eta Santutegiari dagokion Kristo gurutzatua, XVII. mendeko obra. Altzariteriaren diseinua —egoitza eta sareta— Saenz de Oizak egina, eratsu eta arrazionalista da, Sagrarioan bezala, lerro zuzena da nagusi. Honi, Lucio Muñozek argia eta pintura eransten dizkio, mendiko etxe-kutxa japoniarra dirudi, zeinean ugari baitira ezta eta esnea, Testamentu Berriko mana, Eukaristia. Zuri-urdinek sinfonia lirikoa tajutzen dute. Pieza bikaina eta bakarra da.

Kristo gurutzatuaren irudia giza-nahigabetua da, odolez eta arantzez josia, anatomia ederrekkoa, eta urtetan biziki gurtua izan da Komentuan. Gaur egun, kausitze osoz berreskuratu da Basilikako gurtzarako.


Beirategiko zerua

Arantzazuko Basilikaren proiektu-multzo honetako piezarik baliotsu eta ederrenetarikoa, izan ere, beirateek osatzen dute, bere kolorezko beirek, Javier Eulate frantziskotarrak proiektatu eta diseinatutakoak. Pintore beiragileak bere erreperitorioak garatzeko erabilitako euskarri irregularrak zeharkako zabalaren hormen goialdean kokaturik forma organikoa duten lau hostodun irustak dira. Zuhaitz-sastraka-gurutze-gizaki-mendi-zeruen sinbolo izaki, beirazko teselen (tita-harrien) bidez marraztutako formak dira, urdin-belaxkak, ozenak, berdeak eta gorriren bat. Eulate fauvista itzela da eta beirate hauetan bere jakinduria zabalaren eta maisutasun sakonaren zati bat irauli zuen. Argia espazioan barneratzen da eta esparru sakratu guztian



zehar isurtzen den klima urdin perlatsu txit ederra eta misteriotsua sorrarazten du, Lucio Muñozen erretabloarekin eta arkitekturak duen harri eratsuarekin zorionean bat eginez. Beirateek —baiezten du Javier Garridok— ez dute ezein gairik deskribatzen. Giza-esperientzia birsorrarazten duten sinboloak oharrematen dituzte. Horrexegatik, objektu pikturiko ez baino, argi, joko eta laztan dira.

Zentzu honetan, Alvarez Eulatek berak garatzen du, ia kontzeptu minimalista erabiliz, berebiziko argi eta kolore jokoa elizarako jaitsieran. Bioleta eta gorri angeluzuzenetik, laranja-horira, eta honetatik urdin-gris perlaturaino. Beste hainbeste esan liteke otoigurako bidean kokaturiko beirate abstraktuez, bata aurrekoak bezala Metzen egina (1956), Atelier Simminger-en, eta bestea 1984ean. Inoiz ez da horrenbeste esan ahal izan beira horren gutxi ezarrita. Eulate frantziskotar mistikoa dugu, kolore garbiaren poeta, gardena eta ikastuna.



Xabier de Eulate frantziskotarraren beiradurak.

Agian, horrexegatik gertatzen da hain egokia artista honi Basilikarekin loturiko penitentzi kapera egiteko agindua eman izana, zeinaren bozetoak egiten ari baita gaur egun. Atseginez espero dugu hauen emaitza. Bere lan erlijiosoa Gipuzkoako zenbait eliza eta tenplutan eskatu dute eta arrakastaz burutu izan du azken urteotan: Donostiako Apaizgaitegia, Lasarteko San Pedro Parrokia, Arrasateko Jubilatuen Egoitzako Kapera eta Oñatiko Beneditarren Kapera. Bere "Uholdeondoak" eta "Hodejertzak", bere Kristoak, Ama Birjinak eta Aurpegi Santuak, pietatez eta jaieraz daude eginak, hala nola koloretasun bikain eta finez.

Kripta

Nestor Basterretxearen obra eta bizitza hertsiki loturik egon da Jorge de Oteyazarenera ia hasieratik bertatik. Argentinatik 1952an Euskal Herrira itzuli zenetik, haren obra Ameriketara ezagutu zuen eskultore oriotarraren pentsamoldeari eta praxisari atxikiko zaio, eta biok biziko dira Irunen Luis Vallet arkitektuak diseinaturako elkarren ondoko etxeetan 1958tik 1970era bitartean. Elkarrekiko proiektu eta ideietako garai emankorra izango da.



Nestor Basterretxearen kriptako pinturak.

Basterretxeak, 1952ko Lehiaketan, iradoki zizkioten gaiei "Bekatua, Espiazioa, Barkazioa eta Aintza"ri buruzko mural multzoa proposatu zuen Arantzazuko hormetarako. Izaera sinboliko espresionista zuten bozetoak zeuden, beti ere, gerraurreko euskal pintoreengandik eta Picassorengandik jasotako poetika kubistaren baitakoak, berak hormetarako proiektatu zuen pintura sendo edo eraiki haren oinarrian. Pintorea Oteyazaren iradokizunez aurkeztu zen Lehiaketara, Plazaolak esandakoaren arabera.

Epaileen erabakiak eta pinturen kokapena Elizatik Kriptara lekualdatu izanak artista gaiez aldatzera, "Misiolariak", "Jainkogabea", "Martiriak" eta "Erromesak", eta 650 metro karratutan garatu beharreko proiektu zabalagoa tajutzera eraman zuten. "Beltz eta okreak ugari izango dira, prusia eta zuriekin kontrajarriak. Giza-taldeak ardatz dinamiko handitan barne hartuko dira. Irudiak ez dira tamainu berekoak izango; xedea ez da eszenak irudiztatzea, sinboloak baizik".

Istorioren gainontzekoa ezagutzen dugu. Lana 1955ean eten egin zen, Kriptako bozetorik gehienak marraztuta zeudenean esku inkisiozale eta anker batek ezabatu egin zituen.



Baina Nestor Basterretxearen barne-indarrak eta kemenak ez zioten etsi, 1984ean, Gipuzkoako Foru Aldundiaren dirulaguntzari esker errepertorio ikonografikoak eta berauen burutzapena birplanteatu ziren arte. Pintoreak 4.700.000 pezeta kobratuko zituen bere pinturen ordainetan. Arantzazuko Kripta Penitentzi Kapera eta otoi egiteko leku gisa erabiliko zen, baina zenbait arrazoi dela medio, ez dirudi erabilera honek arrakasta izan duenik. Hondora jaitsi behar da, dio Javier Garridok, "Jaia ospatu baino lehen, beharrezko da jatorrizko nortasunera itzultzea. Izadiarekin adiskidetu, existentziaren drama asumitu, sormeneko uneak behatu, heriotza eta birsorpena... agian galduta gure dimentsioa, berriro bizi".


Basterretxeak, zentzu honetan, hormari atxikiko zaizkion zurezko muraletan moldatuko ditu suaren eta lurraren, airearen eta uraren kosmogoniak, mitologiak, ideologiak, galdutako askatasuna, eta hauen aurrean, bestaldeko horman kristautasunaren historia, Berrionaren berri ematearekin, martiriekin, mistikoekin (San Francisco). Multzoaren buruan dugu, izadia eta gizakia adiskidetzen dituela, Kristo gorri hil eta berpiztua, pairatsu eta indartsua. Lehenean baino lengoaia xahutuago eta sintetikoagoa erabili da bigarren



proposamen honetan, zeinak, beharbada, asaldagarri gertatzen denez, penitentea eta sinestuna beren azken zereginetik desbideratzen baitu. Hala eta guztiz, bere lengoaia plastikoa garbia eta xahua da, ia aldi berean minimala eta kontzeptuala. Matisse eta Rothkoren eragina nabarmenagoa da, zalantzarik gabe, ziklo honetan. Baina Néstor Basterretxea berezko munduaren jabe da, mundu pertsonala, batzuetan gerraondoko "Euskal Eskola"ko kideen baitako izpiritutik hurbila. Ikertzen saiatzen den mundua —Aita Joxe Migel Barandiaranek esan bezala— "artistak mintzaraziko dituen ziorik gabeko enteen, asmo-egoeran diren izaki xumeen eremu zabal horretan, eonen, numenen eta deituren mundu misteriotsuan".



Nestor Basterretxearen kriptako pinturak.



Arantzazuko Kriptan, baieztu du Fernando de Gilesek, badago, beharbada, sumindurarik, tentsiorik, batzuetan gogorkeriarik ere bai, herri honetan zergatik garraisi egin bazegoela ohartzetik sortutako bere beste lanetan gertatzen den bezalaxe. Baina, edertasuna da beti mezuaren azken nolakotasuna.

Otoigua

1965ean Arantzazura ikastera joandakoan, Xabier Egaña pintore gazteak fatxadako Apostolutza egiten hasia zen Jorge Oteyzarekin egin zuen topo. Hark, egiten zuen guztia erakusten zion maisuari eta honek adorea ematen zion beti. Oteyzaren maisutasuna eta burutapen bero eta bikainak izan ziren bere elikagairik onena eta bere zereginetan aurrera egiteko bultzadarik handiena. Hamar urte geroago, Oteyza Iruñean topatuko zuen berriro. Han zegoela proposatuko zioten, hain zuzen ere, Arantzazuko Ama Birjinaren otoigua egitea.


Bozeto abstraktu bat prestatu zuen, zurezko blokeekin, lehen maketa batean. Gaztainki ugari eta kolore ugari. Baina, Oteyzak eta Eulatek burutik kendu zioten, horretatik bazela nahikoa Basilikaren beste leku batzuetan. Beste bozeto batzuk egin zituen pintura hutsezkoak, pintura laua, eta hauekin Saenz de Oizarengana jo zuen. Guztia izan zitekeen egoki. Ez zion aitzakiarik edo eragozpenik jarri. Horma-pinturaren zikloak, tenplez eta oleoz erabakia, ondokoa irudiztatzen zuen: Sorkuntza (eraikitze bidean dagoen hiria), Mundua (lana eta heriotza), Salbazioa (Maria eta Jesus), Apokalipsia eta Azken Garaia (Parusia eta jendetza bizi den hiria). Pintore gazteak, Picasso, Arteta, Oteyza, Guayasmin eta Chagall ikasita zituenak, kutsu sinboliko espresiboa ematen die bere irudi eta multzoei, konposizioak eta irudiak bihurrituz eta zabalduz. Urdin, gris eta okre sakonak gorri, hori eta berde argitsuen bidez zabalitzen eta egokitzen dira. Sarrerako pertsonaia erori eta astunek hegaldakorrak eta arinak diren beste batzuei uzten diete lekua, argiz blaitutakoak eta lirainak.

Halere, salbazio-mezua eta guzti, gizonezko eta emakumezko biluzki batzuk agertu izanak, liskar larriak sorraz zituen burutzapenean zehar eta batzuk ezabatu egin behar izan ziren. Polemika berria sortu zen Arantzazu inguruan eta hau aldizkari eta egunkarietara iritsi zen. Egileak guztia adierazi zion Frantziskotarren Komunitateari eta honek piskanaka onartu egin zuen. Gaur egun mezua asumituta dago eta ezerk ez du inor asaldutzen.

30 metroko luzera eta 4,5eko garaiera duten erazko panelak hiru hilabeteetan burutu ziren, jite sinboliko espresiboko ikonografia giza-erlijiosoa gauzatuz. Marrazkera eta grafia indartsu eta ahaltsuak dira orokorrean. Beharbada, gehiegi ere bai, zenbaiten ustez, Otoiguaren buruan dagoen irudi sakratuarengana eramaten gaituen pasabiderako. Forma eta bolumenen espresionismo kementsuak bisitaria eta erromesa gehiegizko indarrez jo eta aztorazen ditu, beste esparru plastiko eta erlijioso telurikoagoetatik hara sartzen denean.



Xabier Egañaren kamarineko pinturak.



“Ia izendatu ere ez dugu egin Gurutziltzatua. Baina Andre Mariari deika ari zaion herri nahigabetuaren sinbolo da: hemen bere penak hustutzen dituen debotua, justiziaren gose eta egarri den gizon bakoitza, bere bizitzaren entregua dagien edozein emakume... Jesus da, Semea, Mariarekin Baltzategiko Errodrigori agertu zitzaion berbera, Basilika honetan igandero ospatzen dena, gure nahigabeak bere nahigabe egin zituena eta gure esperantza pozten duena”.

Javier Garrido

Arantzazuko eskola

Artista talde oso honek, ikusi dugunez, berrikuntza eta eguneratze proiektu integralean elkarrekin lankidetzan parte hartu zutenek, 50 eta 60ko hamarkadan nagusiki, izpiritu berbera arnasten eta jaulkitzen zuten: berrikuntza eta abangoardien izpiritua, berezko historiatic eta berezko lurretik abiatuz, maite dugun eta gainera astunegi ez zen



Aita Villasante bere gelako txokoa.

tradizio plastikoa ukatugabe eta baztertu gabe. Hau dela eta deitu zioten, Santiago Amón, M^a José Arribas, Ana Guasch eta kideko historiagileek artista multzo honi "Arantzazuko Taldea". Beren komunitateari eta bizi zireneko herriari, leku erlijioso eta publiko pribilegiatutik, plastikari dagokionez beraiek zeukaten onena eskaintzen saiatu zen taldea izan baitzen.

Arantzazuk, bestalde, Herrialdeko santutegi eta monastegi handiek legez, liburutegi eta artxibategi bikaina zuen, bertako pinakoteka eta bilduma zuen gai etnologikoei dagokienez, dokumentu fondo garrantzitsua gordetzen zen eta liburuak inprimatzen ziren bertan. Fraide talde jakitun batek bultzatu zuen Arantzazun mende honen bigarren erdian Euskal Herriaren kultura garaikidearen ardatz hedakorra gauzatu zuen berrikuntza eta birsorpen fenomenoaren espikatzen zuen kultur loratzea, eta beraien buruan kokatu behar ditugu Pablo Lete, Julian Alustiza, Eugenio Agirretxe eta Iñaki Beristainen gisako hitzeko eta ekimeneko gizonak, Jose Goitia, Jose Luis Elortza eta Ramon Irizar, Biblian adituak, Luis Villasante, Kandido Izagirre, Jose Ignazio Lasa, Mariano Errasti, Demetrio Garmendia, Pedro Anasagasti, Joseba Intxausti eta Juan M^a Torrealday bezalako hizkuntzalari eta historiagileak, Salvatore Mitxelena, Jose



Aita Lasa hain Arantzazukoa.




Arantzazuko musika banda. 1917.

Agustin Elustondo, Bitoriano Gandiaga, Joxe Azurmendi, Javier Garrido, Paulo Agirrebalzategi, Manuel Pagola, Jose Antonio Garate eta Jose Luis Zurutuza poeta eta idazleak, Jose M^a Arregi, Leonardo Zelaia, Karmelo eta Jose Iturria, Estanislao Sudupe, Bittor Etxeberria, Pello Zabala eta Felix Ibarrondo musikari eta organojoleak, Kandido Zubizarreta, Joseba Etxeberria eta Martin Mendizabal artxibozain eta liburuzainak, Jose Agustin Mendizabal, Nikolas Segurola eta Luis Arrayago naturalistak, Xabier Alvarez de Eulate, Jose Luis Iriondo, Xabier Egaña, Jon Arriola eta Joan Mari Martinez de Ilarduya artistak.



“Jakín” aldizkariaren adierazpen bat.

Hau da Arantzazuko benetako Eskola, eta berau, aldi berean, zenbait mendez geroztik datorren tradizio luzean barne dago. XVII. mendetik dauka Santutegiak berezko Musika-Kapera, bertara gainera Gasteizko eta Iruñeko




Bitoriano Gandiaga lan-gelan.

musikariak etorri izan dira, XVIII. mendeko fraideek berek orkestra bikaina osatu zutelarik. Larunbaterako Mariaren gorespenaren eta "Benedicta"ren kantuen ondorioz ere, mende honen bigarren erdira arte iraun duen Haur-Eskolania sortu zen XVIII. mendean.

Bertako predikarien ospeak ere XVII. mendetik gaur egun arte iraun du. Komunitateko fraideak Logroñotik deitu zituen Inkisizioak Sorginkeriei aurre egiteko. Gaur egun ere Euskal Herriko tenplu askotan ibili ohi dira, Gipuzkoan batez ere, Garizumako predikualdia egiten. Bertako poeta eta musikariak artista nazional gisa onarpen zabala jaso dute hiritarren sektore askoren aldetik, beren testu eta konposizioak erromantze-sorta herrikoian, literaturan eta gurtza liturgikoan bildu izanak adierazten duen bezalaxe.

Arantzazu, XX. mendearen amaiera aldean eta XXI.aren bezperatan, oraindik ere, Euskal Herriko Andremariar Santutegirik garrantzizkoena da, eta otoitzerako nahiz

Pablo Lete Arantzazu berriaren eragilea.



Iñaki Beristain hitzaren iturri oparoa.



Candido Zubizarreta bere giroan.

Izadiaren eta Bizitzaren Arkitektu Guztiz Eder eta Onarekin adiskidetzeko eta topatzeko lekua da. Asisko Frantziskoren anaia "gizarajo" batzuen komunitatea apalki bizi da Maitasunaren misterioan, eta beren aitormena eta abegi ona eskaitzen dizute.




Pello Zabala: eguraldi, musika eta luma gizona.



Jose Luis Zurutuza, idazle, itzultzaile, organista, gizon gordea.

Julian Alustiza, hitz mintzatuaren eta idatziaren modulatzaileria handia.



Arantzazuko aldizkari hilerokoaren ale bat.

ARANTZAZU

Harkaitz eta harkaitzarte handiak, elorrondo zahar bat eta aspaldiko Andre Maria harrizkoa, frantziskotar fraile talde maratz bat eta denetariko aleunka erromes maitagarri.

ARANTZAZU

Eliza nasai moderno ongi orekatu bat, artista handien lan plastiko ikusgarriak, tarte, gune naharo isiltasun zabaleko gardenak eta transzendentzi giro eragingarria.

ARANTZAZU

Elizkizun gogoz eta patxadaz eginak, aitortza eta gogoeta ordu nare astitsuak, erromesentzat bizi den komunitate otoizlaria eta herri iorantsu bat historia luzean gora.

Bitoriano Gandia

Bibliografia

- ALVAREZ MARTINEZ, M^a Soledad. *Escultores Contemporáneos de Gipuzkoa. 1930-1980*. Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintziala. 1983.
- ANASAGASTI, Pedro. *Aránzazu. Historia-Paisaje-Tradición*. Bilbo. 1955.
- ANASAGASTI, Pedro. *Aránzazu, milagro de piedad y de paisaje*. Iruñea. 1961.
- ANASAGASTI, Pedro. *Violentos atropellos e incendios en Aránzazu en 1822*. BRSBAP. 1963.
- ARAMBURU, Vicente. *Colección de cantos religiosos*. Bilbo. 1947.
- ARANTZAZUKO ARTXIBATEGIA. *Zenbait karpeta eta bibliografia*. Oñati. 1993.
- ARRIBAS, M^a José. *40 Años de Arte Vasco. 1937-1977*. Erein. 1979.
- BAGÜES, Jon. *Catálogo del Antiguo Archivo Musical del Santuario de Aránzazu*. Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintziala. 1979.
- BARANDIARAN, José Miguel. *Basterretxea*. Antológica. Espainiako Arte Garaikidearen Museoa. 1987.
- BONET CORREA, Antonio. *Arte del franquismo*. Katedra. Madril. 1981.
- BOZAL, Valeriano eta beste batzuk. *Vanguardia artística y realidad social: 1936-1976*. Gustavo Gili. Bartzelona. 1976.
- CELAYA, Gabriel. *Los espacios de Chillida*. Polígrafa. Bartzelona. 1973.
- ERASO, Paula. *Vanguardia y Oteyza*. Argitaratu gabeko tesina. Zati txiki bat "Cuadernos de Artes Plásticas y Monumentales", 6 alean argitara emanik. Eusko Ikaskuntza. 1989.
- ESTEBAN, Claude. *Chillida*. Maeght. 1971.
- ETXEBERRIA, Ventura. *Historia de Arantzazu*. Argitaratu gabeko eskuizkribua. XIX mendea. Arantzazuko Artxibategia.
- GAMARRA, Gaspar. *Historia de Aránzazu*. 1648.
- GANDIAGA, Bitoriano. *Arantzazuko folklore-gaien-biltzeaz*. Euskera. Euskaltzaindia. 1956.
- GARIBAY, Esteban de. *Compendio Historial*. Amberes. 1571. XVII liburua, XXV atala.
- GARRIDO, Javier. *Arantzazu*. Arantzazuko Frantziskotarren Argitaldaria. Oñati. 1987.
- GUASCH, Ana María. *Arte e Ideología en el País Vasco: 1940-1980*. Akal. Madril. 1985.
- GUERRA, Juan Carlos. *Ama Birjiña Arantzazukoaren Kondaira*. Donostia. 1890.
- KORTADI, Edorta. *Néstor Basterretxea en Arantzazu*. Argitaratu gabeko hitzaldia. Donostiako Aurrezki Kutxa Munizipala. Donostia. 1986.
- KORTADI, Edorta. *Eduardo Chillida y Hernani. Buenos recuerdos para la memoria*. Hernani aldizkaria. Hernaniko Udala. 1992.
- KORTADI, Edorta. *Xabier Egaña en su obra*. Katalogoa. San Telmo Museoa. 1990.
- KORTADI, Edorta. *Erligio Kontzeptua Oteyzaren lanetan*. Jaunaren Deia. 59-60-61 zk. Lazkaoko Beneditarrek. 1977.
- KORTADI, Edorta. *Euskal Artearen Historia*. Egungo Aroa III. Donostia. Kriselu. 1992.
- KORTADI, Edorta. *Gipuzkoako pintoreak 1939-1979*. San Telmoko Museoa. Donostiako Aurrezki Kutxa. Donostia. 1979. (Gainera: egileak Arantzazu Taldeko ia artista guztiekin izandako elkarrizketak).
- LASA, José Ignacio. *Topografía, agricultura y establecimientos humanos en el barrio de Aránzazu*. Eusko Folklorearen Urtekaria XVI. 1956.
- LIZARRALDE, Adrián. *Historia de la Virgen y del Santuario de Aránzazu*. Arantzazu. 1950.
- LUZURIAGA, Aita Juan de. *Paranyño Celeste. Historia de la mystica zarza, milagrosa imagen y prodigioso Santuario de Aránzazu*. Mexiko. 1686. Madril eta Donostia. 1690.
- MAS SERRA, Elías. *50 años de Arquitectura en Euskadi*. Eusko Jaurlaritz. 1990.
- MITXELENA, Salbatore. *Ama-Semeak Arantzazuko Kondairan*. Zarautz. 1951.
- MONFORTE GARCIA, Isabel. *Arantzazu. Arquitectura-Escultura-Pintura*. Argitarako gabeko doktoretzarako tesia. Gasteiz. 1993.
- OTEIZA, Jorge. *Quosque tandem...! Azkue*. Auñamendi. Zarautz. 1963.
- PASTOR Y RODRIGUEZ, Julián. *Historia de la imagen y Santuario de Nuestra Señora de Aránzazu*. Madril. 1880.
- PELAY OROZCO, Miguel. *Oteyza*. La Gran Enciclopedia Vasca. Bilbo. 1978.
- PLAZAOLA, Juan. *Néstor Basterrechea*. Hezkuntza eta Zientzia Ministraritza. Madril. 1975.
- PLAZAOLA Juan. *Euskal Artearen Historia*. Egungo Aroa III. Kriselu. Donostia. 1992.
- VILLASANTE, Luis. *Santa María de Aránzazu. Patrona de la Provincia*. Enciclopedia Guipuzcoana. 3 Faszikuloa. Donostia. 1964.
- ZUMALDE, Ignacio. *Historia de Oñate*. Donostia. 1957.
- ZUMALDE, Ignacio. *La Virgen de Aránzazu en exilio*. Ensayos de Historia local vasca. Auñamendi. 1964.

Ikonoграфия

G = goian, B = behean, E = erdian, Es = eskuinean, Ez = ezkerrean.

Arantzazu Artxibategia. 4 or. B; 5 or. Ez; 14 or.; 18 or. Ez; 22 or. Ez; 27 or.; 34 or.; 37 or. Ez; 40 or.; 50 or.; 56 or. Ez; 67 or. G; 68 or. B.

Gipuzkoako Foru Aldundia. Ojanguren Artxibategia. 16 or. B.

Plazaola, José Luis. 22 or. Es; 24 or.; 48 or. Es.